



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2007ko azaroaren 16a

29. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzen duena (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailearen 3ko 4/2000 Foru Legearen 2. artikulua, 3/2005 legeko testu indardunekoa, aldatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren pentsioak (SOVI) jasotzen dituztenei, haien dirusarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak direnean, laguntza osagarria emateari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, gizarte zerbitzuen zorroari buruzkoa. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak egina (6. or.).
- Jabeldura, kultur arloko politika orokorrari buruzkoa. Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (7. or.).
- Jabeldura, Europako gaur egungo errealitatearen aurrean gure autonomia bermatze aldera hartu beharreko neurriei buruzkoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak egina (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ustiategi batean besterekin batera titular diren 40 urtez beherako emakumeei Gizarte Segurantzako kuoten %20 adinako hobaria eman diezaien gutxienez 3 urtez, haien ezkontidea nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategi bateko titularra izan eta Gizarte Segurantzako nekazaritzako erregimen berezian alta emana den kasuetan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da konponbide bat azter dezan, Nafarroako Antzerki Eskolako arduradunekin lankidetzan, egoitza egonkor bat izate aldera. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak, haurren eta nerabeen diabetearen nazioarteko eguna dela eta, bere konpromisoa agertzen du haurren eta nerabeen diabeteari buruzko 1989ko St. Vincent-eko adierazpenaren helburuak betetzeko. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Comptos Ganberako auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzeko deialdia. Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda ([11. or.](#)).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 12an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2007ko azaroaren 12an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

**Foru Lege proposamena,
Euskarari buruzko abenduaren
15eko 18/1986 Foru Legearen
5.b) artikulua aldatzekoa**

ZIOEN AZALPENA

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1996 Foru Legeak Nafarroako hizkuntza eremuak osatzen dituzten herriak zerrendatu zituen, garai hartako legegileari egokiak iruditu zitzaizkion irizpide soziolinguistiko eta politikoen arabera.

Araudi hura onetsi eta hogeitau urte baino gehiago iragan direnean, bistakoa da Iruñerrian etengabeko hiri-bilbea osatu duten gizarte- eta hirigintza-garapenak izan direla.

Izan ere, gaur egun antzeko osagai soziologiko eta soziolinguistikoak dituen "Iruñeko konurbazio" bat dago, gaur egun indarrean dagoen 1986ko foru legeak ezarritako hizkuntza eremuen banaketa berrikustea justifikatzen duena. Adibidez, konurbazio horretan izugarri igo da haurrak ikastetxe publikoetan euskaraz eskolatzeko eskaera. Hizkuntza eremuak egokitzeari eta berrikusteari dagokionez, "Iruñeko konurbazioa" eremu mistoan sartu beharko litzateke, administrazioak gizartearen eskaerari erantzuteko.

Aldaketa horrek oztopoak kenduko lituzke, eremu horretan derrigorrezko hezkuntza euskaraz egiteko dagoen eskaerari administrazioak erantzun ahal izateko, norbera zer herritan bizi den, horren arabera diskriminazio artifical eta burokratikoak alde batera utzita.

Horretaz gain, Nafarroako Gobernuak egin berri duen ikerketa soziolinguistikoaren arabera, eremu ez-euskaldunean dauden Iruñerriko lau udalerrietako (Aranguren, Beriain, Galar, Noain-Elortzibar) biztanleen % 71,7k eremu mistoan sartu nahi du.

Bestalde, 1986. urteaz geroztik eta gizarte eta hirigintza garapeneko prozesuaren beraren ondorioz, banaketa prozesuak izan dira Iruñerriko hainbat herritan, nagusiki Antsoain, Zizur, Galar eta Oltza Zendeetan eragina izan dutenak. Horretaz gain, izen ofizialetan ere aldaketak izan dira eta komenigarria da gaur egun eremu mistoa osatzen duten herrien zerrenda gaurkotzea.

Artikulu bakarra.

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 5. artikuluko b) letra aldatzea. Testu hau izanen luke:

“b) Eremu mistoa, ondoko udalerriek osatua: Abartzuza, Agoitz, Antsoain, Aranguren, Artzibar, Atarrabia, Atetz, Barañain, Beriain, Berriobeiti, Berriozar, Bidankoze, Bidaurreta, Burgi, Burlata, Deierri, Eguesibar, Erronkari, Espartza, Etxarri, Etxauri, Ezkabarte, Ezkaroze, Galar, Garde, Gares, Gesalatz, Goñi, Gorza, Iruña, Itza, Itzaltzu, Izaba, Jaitz, Jaurrieta, Lezaun, Lizarra, Lizoain,

Noain-Elortzibar, Odieta, Olaibar, Ollo, Oltza, Orkoién, Orontze, Orotz-Betelu, Otsagabia, Sartzé, Txulapain, Uharte, Urzainki, Uztarroze, Zabalza, Ziritza, Zizur eta Zizur Nagusia”

Azken xedapena.

Foru lege honek 2008ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 2. artikulua, 3/2005 legeko testu indardunekoa, aldatzekoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2007ko azaroaren 8an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 2. artikulua, 3/2005 legeko testu indardunekoa, aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du eta 2007ko irailaren 21eko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 2. artikulua, 3/2005 legeko testu indardunekoa, alda-

tzeko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Foru Araubide Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun baliaduneko epea hasiko da, zeina 2007ko abenduaren 13ko eguerdiko hamabietan bukatuko baita.** Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2007ko azaroaren 12an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Foru Lege proposamena, Zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren pentsioak (SOVI) jasotzen dituztenei, haien dirusarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak direnean, laguntza osagarria emateari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2007ko azaroaren 8an egindako Osoko Bilkuran, Zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren pentsioak (SOVI) jasotzen dituztenei, haien dirusarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak direnean, laguntza osagarria emateari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du eta 2007ko irailaren 28ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren pentsioak (SOVI) jasotzen dituztenei,

haien dirusarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak direnean, laguntza osagarria emateari buruzko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun baliioduneko epea hasiko da, zeina 2007ko abenduaren 13ko eguerdiko hamabietan bukatuko baita.** Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2007ko azaroaren 12an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, gizarte zerbitzuen zorroari buruzkoa.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko jabeldura, gizarte zerbitzuen zorroari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko azaroaren 12an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marco-tegui Ros

JABELDURAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, eskatzen du jabeldura hau hurrengo Osoko Bilkura batean izapidetzea:

Komenigarria da Nafarroako Parlamentuan eztabaidatzea gizarte zerbitzuen zorro orokorraren gaineko proposamenari buruz.

UPN-CDNren gobernuak ez zuen utzi Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legean sar zitezten arlo horretako prestaziorik gehienak, eta geroago

gizarte zerbitzuen zorroan sartzeko utzi zituen; hori horrela, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkartearen iritziz, gai hori ezin izan da parlamentu honetan eztabaidatu.

Gogoan izan behar da Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legea 2006ko abenduan onetsi zela; eztabaida, ordea, 2007ko irailean ireki da, oinarritzko dokumentu bat aurkeztu delako modu publikoan.

Gizarte eragileen parte-hartzea lortzen saiatu behar da, eta lortu behar da. Uneotan ez da helburu hori bilatu. Bermatu behar da zerbitzuen zorroak aukera eta bidea ematea gizarte ongizatearen benetako laugarren zutabea den hori gartzeko.

Gizarte zerbitzuen zorroaren zenbait alderdi nola gauzatuko diren argitzeko dago oraindik, hala nola zer giza baliabide jarriko diren, nola arautuko diren intentsitateak, bermatutako prestazioak dirulaguntzekin ordeztuko diren ala ez, edo zein izanen diren gaur egun jasotzen diren zerbitzuak jasotzen jarraitzeko baldintza berriak.

Gai horiei buruz eztabaidatzeko eta Gobernuaren iritzia jakiteko aurkeztu da jabeldura hau.

Iruñean, 2007ko azaroaren 7an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Jabeldura, kultur arloko politika orokorrari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkezturiko jabeldura, kultur arloko politika orokorrari buruzkoa.
2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.
3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko azaroaren 12an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

JABELDURAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, kultura politika orokorra dela-eta, ondoko jabeldura egiten du, Nafarroako Gobernuaren Kultura eta Turismo kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun diezaion.

Jabeldura

Kultura politika baten funtsezko ardatzek kultura ohiturak bultzatzea eta publiko berriak lortzea izan behar dutela kontuan harturik:

- Zer egiten du Kultura Departamentuak kulturara publiko berriak erakartzeko?
- Egin al du, edo egiteko asmorik ba al du, herritarrak kulturara hurbiltzeko motibazio kanpainarik? Ba al du estrategiarik alor honetan? Nola lantzen da kultura ekitaldien promozioa? Zein bitarteko erabiltzen dira?
- Zein programa ditu Hezkuntza Departamentuarekin kultura sustatzeko ikasleen artean, adin ezberdinetan?
- Eta Gazteriaren Institutuarekin gazte jendea erakartzeko? Gazteentzako kultura programarik sustatuko al du Gazteriaren Institutuarekin?
- Kultura sustatzeko marketing kanpainarik egiten al du? (Kulturaren sarbidearen bidez herritarrak aberastuko ditugula sinesten baldin badugu, mezu hori zabaltzeko, ezagutzera emateko).

Iruñean, 2007ko azaroaren 8an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Jabeldura, Europako gaur egungo errealitatearen aurrean gure autonomia bermatze aldera hartu beharreko neurriei buruzkoa.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, Europako gaur egungo errealitatearen aurrean gure autonomia bermatze aldera hartu beharreko neurriei buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko azaroaren 12an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

JABELDURAREN TESTUA

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 181. artikulua eta hurrengo babesean, honako jabeldura hau aur-

keztu diote Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Zioen azalpena:

Foru lurraldeen autonomia fiskala ez dago espresuki aitorturik Europar Batasuneko itunen testuan; horrek, azken bi hamarkadetan, segurtasun juridikorik eza sortu du.

Iragan den legegintzaldian, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatu zuen egoera honen aurrean beste estatu batzuetako gobernuek egin dutena egin zezan, beren araubi-

de juridikoetako berezitasun batzuk tratatuetan sartu baitituzte.

Hori guztia dela eta, parlamentu-talde honek Nafarroako Gobernuari jabeldura aurkeztu dio, jakiteko zein den, haren iritziz, Europako egungo errealitatean gure autonomia bermatzeko hartu behar diren neurriak.

Iruñean, 2007ko azaroaren 8an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ustiategi batean besterekin batera titular diren 40 urtez beherako emakumeei Gizarte Segurantzako kuoten %20 adinako hobaria eman diezaien gutxienez 3 urtez, haien ezkontidea nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategi bateko titularra izan eta Gizarte Segurantzako nekazaritzako erregimen berezian alta emana den kasuetan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ustiategi batean besterekin batera titular diren 40 urtez beherako emakumeei Gizarte Segurantzako kuoten %20 adinako hobaria eman diezaien gutxienez 3 urtez, haien ezkontidea nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategi bateko titularra izan eta Gizarte Segurantzako nekazaritzako erregimen berezian alta emana den kasuetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko azaroaren 12an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko:

Nafarroan, estatuan bezala, landa eremuetako emakume gehienak anonimatu egoeran bizi dira, eta familiaren ustiategian egiten dute lan.

Nafarroako Emakumearen Institutuak eginiko txosten baten arabera, nekazaritzan lan egiten duten emakume gehienak familiaren negozioko laguntzailatzat hartzen dira, eta inolako ordainsari pertsonalik, eskubide sozialik eta lanbide nortasunik gabe egiten dute lan, eta nekazaritza erroldan titularraren bikotekide gisa agertzen dira.

CEIN-Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra erakundearen arabera, "Nafarroan nagusiki nekazaritzan eta abeltzaintzan lan egiten dutenetatik, soilik %15 dira emakumeak", baina horrek ez du esan nahi ez dutenik lanik egiten.

Horiek horrela, mozio hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ustiategi baten titularkide diren

40 urtez beherako emakumeei Gizarte Segurantzako kuoten %20 gutxienez ordain diezaien 3 urtez, haien bikotekidea nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategi bateko titularra izan eta Gizarte Segurantzako nekazaritzako erregimen berezian alta emana den kasuetan. Ordainketa hori gehituko litzaioke emakumeak Gizarte Seguran-

tzako nekazaritzako erregimen berezian afilia daitezen sustatzeko Nekazaritza Ministerioak hiru urte horietan eskaintzen duen %30ari.

Iruñean, 2007ko urriaren 25ean

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da konponbide bat azter dezan egoitza, Nafarroako Antzerki Eskolako arduradunekin lankidetzan, egonkor bat izate aldera.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernuak premiatzen da konponbide bat azter dezan, Nafarroako Antzerki Eskolako arduradunekin lankidetzan, egoitza egonkor bat izate aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko azaroaren 12an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu diote Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioak:

Nafarroako Antzerki Eskolako arduradunek, berriki Parlamentuko Kultura Batzordeko kideok eginiko bisitan, beren kezka adierazi ziguten azken hogeita hiru urteetan lan egiteko erabili duten egoitza dela eta. Egungo alokairu-kontratua-aren amaiera-eguna hurbil dagoenez, eskatu ziguten neurri batzuk azter daitezen etorkizunean egoitza egonkor eta jarraitua izateko.

Tokiaren arazoa alde batera utzita, eskolak nabarmendu nahi izan zuen bigarren auzia da bertan ematen diren ikasketen aitorpen ofizialari dagokiona. Eskolako arduradunek jakinarazi ziguten Hezkuntza kontseilariarekin izandako topaketa batean, hark ikasketa horiek arautzearen aldeko jarrera adierazi zuela, eta, halaber, iragarri zuen epe ertain edo luzean ekinen ziola egin behar horri, hain zuzen ere hori egin aurretik erabaki behar baita Nafarroako Antzerki Eskolaren titulua zein ikasketa-mailari legokiokeen. Edonola ere, itxura guztien arabera, Lanbide Heziketako goi mailako heziketa modulu bat izan behar litzateke.

Ikasle asko dira Nafarroan topatzen ez dutena beste autonomia erkidego batzuetan bilatu beharrean aurkitzen direnak, eta gehienak foru erkidegotik joaten dira antzerkigintzaren arloko titulazioa lortzeko ikasketak egiteko.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabakia hartzea proposatzen du:

1. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du Nafarroako Antzerki Eskolako arduradunekin batera konponbide bat aurki dezan Nafarroako Antzerki Eskolak egoitza egonkorra izateko, Iruñean antzerkia sustatu eta irakasteko lanean jarraitu ahal izan dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du Nafarroako Antzerki Eskolako arduradunekin batera konponbide bat azter dezan, zentro horretan etorkizunean emanen diren antzerki-ikasketei aitorpen ofiziala ematera bideratutako hezkuntza-eskaintza bat sortzeko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 8an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak, haurren eta nerabeen diabetearen nazioarteko eguna dela eta, bere konpromisoa agertzen du haurren eta nerabeen diabeteari buruzko 1989ko St. Vincent-eko adierazpenaren helburuak betetzeko.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2007ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak, datorren azaroaren 14an haurren eta nerabeen diabetearen nazioarteko eguna ospatuko denez, honako konpromisoak hartzen ditu:

– 1989ko St. Vincent-eko adierazpenean eta ondoren, adierazpen horrekin loturik, sinatu ziren nazioarteko zenbait akordiotan haurren eta gazteen diabeteari dagokionez jasotako helburuak betetzea.

– Haurren diabeterako unitateei bitarteko zientifiko, pertsonal eta material espezializatu guztiak ematea, horrela haurrari, nerabeari eta ingurukoei laguntzarik onena bermatzeko, betiere diabetikoen elkarrekin lankidetzan jardunez. Horren helburua da laguntzarik onena emate aldera eta etorkizunean sendatzeko itxaropena izate aldera egungo zientziak haur eta nerabe horientzat eskaintzen dituen eta eskainiko dituen aurrerapen guztiez baliatu ahal izatea eta haiek aplikatzea”.

Iruñean, 2007ko azaroaren 12an

Jarduneko lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Comptos Ganberako auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzeko deialdia.

Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda

Nafarroako Comptos Ganberako auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu huts (txanda irekiko bi eta igoera txandako bat) oposizio bidez betetzeko deialdiko 4. oinarriko 3. idatz-zatian xedatuarekin bat etorriz –deialdia Comptos Ganberako lehendakariak 2007ko abuztuaren 10ean onetsi zuen–, eta deialdi horretan onartu eta baztertuturiko izangai behin-behineko zerrenda onetsi eta 2007ko urriaren 24ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, akatsak zuzentzeko eta erreklamazioak aurkezteko epea amaiturik erreklamaziorik aurkeztu ez denez, bidezkoa da deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda onestea.

Horrenbestez, lehendakaritza honek ERABAKI DU:

Lehena. Nafarroako Comptos Ganberako auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzeko deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda onestea. Hona zerrenda hori:

1. Txanda irekia:

a) Onartuak:

Alcalá Gila, Silvia
Alonso Lopez, Eva
Aramendia Yerro, Marta
Arazuri Garín, Juan Mari
Aurrecoechea Gutierrez, Miguel Angel
Ayesta Zardoya, Edurne
Aznárez Álvarez, Miguel
Aznárez Jiménez, Regina
Balduz Gil, Jorge
Barber Ibero, Vanesa
Batuecas García, Noelia
Beaskoetxea Melchisidor, Josu
Beaskoetxea Melchisidor, Nerea

Bretos Noain, Enrique
Cabornero Marco, Alicia
Cortaire Ciordia, Ana
Curto Martín, Paloma
De la Fuente Lebantini, Alejandra
Donazar Andrés, Jesús
Esparza Leibar, Gotzon
Esparza Munárriz, Santiago
Ezcurdia Vaquerizo, Eduardo
Fernández Fernández, Xabier M^a
Galbete Zabala, M^a Cristina
García Cascante, M^a Esperanza
García Etxeberria, Haize
García Leránoz, Elisa
Glaría Santafé, Beatriz
Gómez Elizalde, Virginia
Gonzalez de Castejón y Hermoso, M^a Jesús
Ilundain Ilundain, Beatriz
Itoiz Goñi, Nora
Lugea Reta, M^a Teresa
Lus Guelbenzu, Natalia
Martín Caballero, Raquel
Montero Pejenaute, Francisco
Moreno Focillas, Marta
Moreno Orduña, Karen
Moso Sanz, Jesús
Navarcorena Eleta, Eva
Obanos Goñi, Belen
Pérez Monzó, Amador
Pérez Monzó, Salvador
Pinillos Salvador, M^a Teresa
Redin Nicuesa, Enrique
Serrat Cea, José
Sola Mateos, M^a Belén

Unzué Guruchaga, Adriana
Urricelqui Larrañaga, Amaia
Zarranz Alli, Eva

b) Baztertuak:

Inor ez.

2. Euskaraz jakitea berariazko betebeharra duen lanposturako txanda irekia.

a) Onartuak:

Ayala Maya, Andoni Gonzalo
Barbería Azpiroz, Maite
Crespo Montes, Alberto
Estevan Sanchez, Asier
Galdeano Zubeldia, M. Arantzazu
Izaguirre Ugalde, Iker
Izcue Basail, Arantza
Malkorra Araolaza, Nerea

Ondarra Erdocia, Rosario
Rodríguez Jiménez, Ainara
Soto Cotorro, Iruñe

b) Baztertuak:

Inor ez.

3. Txanda murriztua:

a) Onartuak:

Casado Redín, Cristina

b) Baztertuak:

Inor ez.

Bigarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urtebete 45,15 euro Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,18 » Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,34 »</p>	<p>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA</p>
---	--